

Herri Aldizkaria

2001eko maiatza 7. alea

Angel Arrospide: bizitza erdia aizkolaritzaren puntaren puntan

ANTZERKIA MAIATZEKO ERREGE

ELKARRIZKETA: JOXE MARI IRIONDO, "ZALDIBARKO TRIKITIXA"

ZUBEROA EZAGUTZEKO EKIMENA



**Euskadi Euskaditik
governatzea nahi duzu?**



www.ibarretxe.com



Ibarretxe da baietza.



Zuen amek gazteak zirenean ez zutela parrandarik egiten uste al zenuten? Ea hurrengo parrandaren ondoren etxera balantzaka heltzen zaretenean zer esaten dizueten...

Goian ezkerretik eskubira: Margari "Kaminpe", Mertxe Ormazabal, Juanita Zabaleta, Pilar Gabilondo, Maria Luisa, Leo Agirre, Maria, Juanita, Puri Goenaga, M^a Luisa Ruiz eta M^a Dolores Iurre.

Behealdean: Josepa Etxezarreta, Anita Goenaga, Carmen Adrian, Graciana, Genoveva eta M^a Carmen Azpiazu.



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila eta Hizkuntza Politikarako Sailordetzak, Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura eta Euskara Departamenduak, Urretxuko udalak eta Zumarragako udalak emandako diru laguntza jaso du

Argitaratzailea: Zintzo Mintzo Euskaltzaleen Elkarte, Labeaga kalea 12, 20700 Urretxu. Tel:943725775

Koordinatzailea: Asier Zaldia **Erredakzio kontseilua:** Unai Alzelai, Aintzane Arizmendiarieta, Jon Balenziaga, Gorka Erostarbe, Jonmikel Insausti, Jon Ormazabal, Amaia Pildain, Igor Susaeta, Marian Toledo, Asier Zaldia.

Diseinua: Sebas Iturrioz. **Informatikaria:** Jonmikel Insausti. **Inprimategia:** GOI DESIGN - Zumarraga

Lege Gordailua:SS-742/96 **ISSN:**1136-7318 **Tirada:**2.000 ale. **Edizio digitala:** <http://www.geocities.com/Athens/Delphi/2202>

Otamotz aldizkariak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.



Mutua General de Seguros

Jose Luis Balenziaga

Areizaga, 3 URRETXU tel:722599


Iñaki Beitiaren omenezko V. Mendi Martxa

Hilaren 20an urtetik urtera handitzen ari den Iñaki Beitiaren omenezko V. mendi martxa izango da. Aurreko urtetan bezala, antolatzaileek bi ibilbide prestatu dituzte (luzea eta motza), mendian sarritan ibiltzen direnek zein ez direnek parte hartzeko aukera izan dezaten.

52 kilometro dituen ibilbide luzea goizeko 6etan aterako da Kalebarren-Areizaga enparantzatik eta Goikotxabolatik aurrera Legazpi aldera joango da. Korostitik pasa ondoren, Arrolamenditik behera Deskargara joango da. Hemendik Irimora igoko da, Trekutzetik pasata Aizpurutxora jaitsi eta ondoren Agiñatik gora Samiño eta Izazpi igoko dituzte mendizaleek. Hemendik herrira jaitsiko dira, honenbestez ibilaldia-ri amaiera emanez.

Ibilaldi luzea egiteko gogorik edo astirik ez dutenak, berriz, goizeko 8etan aterako dira Areizaga-Kalebarren enparantzatik. 22 kilometrotan Irimo igo, Aizpurutxora jaitsi eta Agiñara igo ondoren herrira itzuliko dira.

Ibilaldian parte hartzeko 1.000 pezeta ordaindu behar dira eta izen ematea Urretxu eta Zumarragako kiroldegietan edo Ostadar M.T.aren egoitzan egin ahal da, baita irteera aurretik ere. Dena den, izena martxa aurreko egunetan ematea gomendatzen dute antolatzaileek.



“Txori erratuen bilera” liburutegiaren urteurrena ospatzeko



Argazkia: Aguado Goñi.

Apirilaren 20an, Urretxuko liburutegiaren 30. urteurrena ospatzeko herriko hainbat lagunek "Txori erratuen bilera" izeneko poesia eta musika errezitaldia eskaini zuten liburutegian bertan. Errezitaldi hau Jose Luis Padronen "Txori erratuen bilera" liburuan oinarritua dago eta Jose Luisekin batera Koldo Cadierno, Peio Biain, Andoni Salamero, Araiz Padron eta Zuhaitzaren Soinua txalaparta taldekoak izan ziren poemak irakurtzen, abesten eta musika jotzen.

Orubete inguruko errezitaldiaren ondoren, bertan bildutakoek liburutegiaren urteurrena ospatzeko kaleratu den "Hitz-Erraietan. Liburutegiaren 30. urteurrena" liburua jaso zuten.

Argazkia: Aguado Gofi



Julen Gabiria Pello Gonzalezekin izan zen aurkezpenean.

Julen Gabiriaren "Iparragirre" liburuaren aurkezpena

Apirilaren 6an, Julen Gabiria galdakaoarrak Iparragirreraren bizitza eta lanari buruz idatzi duen liburua aurkeztu zuen Urretxuko Udaletxeko Areto Nagusian. Berarekin batera Elkarlanean argitaletxeko Xabier Mendiguren, Pello Gonzalez Urretxuko alkatea eta Jon Aldama zinegotzia izan ziren. Aurkezpenean Julen Gabiriak liburuaren zenbait zati irakurri zituen eta tarteka Ostebi taldeko musikariek, Iratzarriko dultzainariek eta

Urretxuko Txistulariek Iparragirreraren hainbat kanta eskaini zizkieten Udaletxean bildutakoiei.

"Iparragirre" liburua "Elkarlanean Biografiak" sailaren barruan kaleratu da eta bere ekarpen nagusia mitoa albo batera utzi eta Jose Mari Iparragirre gizakia erakustea da. Hori dela eta, Iparragirreraren familiak, bere garaiak, ideiek, izakerak... liburuan leku garrantzitsua hartu dute.



Argazkian bere lagunekin ikusi dezakezuen Iñaki Zabalak irabazi zuen Zintzo-Mintzok hilero zozketatzen duen martxoko itsaski oitarra. Dirudienez Iñakik oso lagun onak ditu eta ez zeuden ez Iñaki otarrarekin bakarrik uzteko prest! Hurrengo zozketa ekainaren 9an izango da "Biba Zuberoa" ekimenak antolatu duen jaialdian eta bildutako dirua "Xiberoko Boza" irratitari emango zaio.

MASTER HEZKOR

Zumarragako elektrogailu erakusketarik handiena!

Prezio eta modeloetan aukera aparta

Urdaneta, 5 ☎ 72 41 31
ZUMARRAGA



Edergintza

Edergintza tratamenduak
Depilazioak
Solarium

Labeaga, 2 URRETXU ☎ 72 25 13

Eskulanetarako eskaioa, pintura edo besterik behar baduzu zatoz hona



Ipeñarrieta, 4 ☎ 943 72 14 20
URRETXU

GOSARIETAN BEREZITASUNA
GOIZEKO 6etan ZABALTZEN DUGU



OSINALDE
KRUASANDEGIA
TABERNA

S. Esnaola, 26 ☎ 943 72 03 06
ZUMARRAGA



GUREA

Iturgintza



Bainurako altzariak
Gas instalazioak
Berogailuak
Bainuak...

Barrenkale 17- ☎ 72 12 67
20700 URRETXU

Herri sahararrari buruzko astea

Aldiri Kultur Elkarteak herri sahararrari buruzko astea burutu du.. Apirilaren 19an bideo emanldia izan zen Aldirin bertan eta 26an Elbar Bujari Sahararra eta Frente Polisarioko kidea Urretxuko Kultur etxera etorri zen.

Elbar Bujarik batez ere bi gai jorratu zituen: Bata, beraien lurraren okupazioaren aurrean, hiru hamarkadetan, gizarte sahararrak izan duen bila-kaera. Talde nomadez osatutako herria izatetik barne egitura sendoa duen komunitate bihurtu da. Komunitate horrek desertuan, egoerarik latzenetan, beharrezko guztia du: osasuna, hezkuntza... Lorpen handia da hori eta horretan emakumeen partehartzea oinarritzkoa izan da. Hiru hamarkadetan aldaketa handia izan da.

Nazioarteko harremanez ere hitz egin zuen Elbar Bujarik. Harreman horie-



Elbar Bujari aurkezle lanak egin zituen Gorka Garmendiarekin.

tan lurra okupatuta duen Estatu honen interesak non gelditzen diren eta egungo egoerari buruz aritu zen. Egun oso aurreratua dagoen baina gauzatzera iristen ez

den bake plana dago. Urteetako itxaronaldia oso gogorra da sahararrentzat, zirt edo zart egin beharra daukate eta gerraren hasiera aurrikusten da.

ELAren egoitza berriaren inaugurazioa

ELA sindikatuak apirilaren 20an Madaya etxeko 33 L atarian dagoen bere egoitza inauguratu zuen. Jose Elorrieta idazkari nagusia ere Urretxura gerturatu zen eta sindikatuak bailaran dituen ordezkariekin bilera izan zuen inaugurazio ekitaldiaren ordua heldu aurretik. Elorrietak beharrei egokitzeko asmoz, Gipuzkoako bailara ezberdinetan egoitzak berritzen ari direla adierazi zuen. Bestalde, lan baldintza kaxkarra-koak dituzten eta kide dituzten taldeek egoitzako ateak zabalik dituztela ere esan zuen.

Inaugurazio ekitaldian urteetan herrian sindikatuko arduradun izan den "Txantxi" Kortabarriari omenaldi xumea eskaini zitzaion. Asmo horrekin Lurra Dantza Taldeko dantzari batek ohorezko aureskua eskaini zion eta bertso batzuk ere kantatu zitzaizkion. Kortabarriak utzitako lekukoa Carlos del Riok hartu du, zeinek eskerrak eman zizkion urte hauetan guztietan egindako lanarengatik.

Zumarragako Industrialdearen 3. faseko lanak abian dira

Apirilean hasi dira Zumarragako Industrialdearen 3. faseko lanak. Pabiloi berrien eraikuntza lana Lazkaoko "Miguel Imaz Construcciones"-en esku dago eta datoren urteko martxorako lanak amaituta egotea espero da. Epe honetan, 10.295 m²-tan, moduluetan banatu daitezkeen 6 pabiloi eraikiko dira. Lan hau guztia egiteko Lazkaoko eraikuntza enpresak 420 milioitako aurrekontua aurkeztu zuen.

Nahiz eta eraikuntza lanak hasi berriak diren, enpresek jada pabiloi berriak lortzeko eskaera luzatu dute eta eskaera hauei guztiei baiezkua emango balitzaie 10.295 m²-en %60 hartuak leudeke jada.

Aurreko bi faseetan eraiki diren pabiloi guztiak ehuneko ehunetan beteta daude. Egun industrialdeak dituen 17.600 m²-etan 25 enpresa daude eta berauetan 250 pertsona inguruk lan egiten dute.

Etxebizitza sozialak alokairuan

Zumarragako Udalak premia larrian dauden familientzat Busca Isusin dauden 13 etxebizitza jarriko ditu alokairuan. Etxebizitza hauetako bat eskuratu ahal izateko eskatzaileak Zumarragan enpadronatuak egon behar dute eta azken 9 urteetan bertan bizi izandakoak izan behar dute. Bestalde, etxebizitza berri baten beharra dutela frogatu beharko dute, urtean 2.500.000 pezeta baino gutxiago eta 500.000 baino gehiago irabazi eta baldintza sozio-familiar batzuk bete beharko dituzte (sei kide baino gehiagoko familia izatea, bergizarteratze bidean dagoen toxikomania izatea...).

Alokairuaren salneurria etxebizitzak banatu ondoren zehaztuko da, maizterren egoera ekonomikoa eta etxebizitza bakoitzaren m² kopurua kontuan izanik. Alokairu kontratuak bost urteko iraupena izango du eta Udalak bi hilabeteko aurrerapenez jakinaraziko die maizterrei kontratua amaitzera doala etxebizitza Udalaren esku utzi dezaten.

Eitzako dendari eta tabernariok San Isidro jai zoriontsuak opa dizkizuegu

Pili Balenciaga

JANARIDENDA



San Gregorio 27
☎ 655 73 67 85

AMAIER

LENTZERIA OSAGARRIAK

Itxura

ILEAPAINDEGIA
APAINDEGIA

Busca Sagastizabal, 1 behea
☎ 943 72 58 19

GALVEZ

JANARIDENDA
GARRAIOAK

☎ 943 72 12 22

LARUNBATA 12

16:30etan: XXIII. Mus Txapelketa.
18:00etan: Triatloi apustua.
22:00etan: Eitzako ereserki berriaren aurkezpe-
na.

ASTEARTEA 15 (SAN ISIDRO EGUNA)

11:30etan: Meza San Gregorion eta auzoko jubi-
latuentzako luntxa.
19:30etan: Poteoa Zumarragako trikitixarekin.

OSTIRALA 18

18:30etan: Ume jolasak.
19:30etan: Poteoa Elortza Anaiekin.
20:00etan: Gorriti eta bere animaliak.
21:30etan: Afari herrikoia.
23:00etan: Dantzaldia Kiñurekin.

LARUNBATA 19

12:30etan: XXI. Toka txapelketa.
13:00etan: Zaldua Anaiekin kalejira.

16:00etan: XVIII. Kross Herrikoia.
19:30etan: Araiako dantza taldea.
Ondoren trikitixa.
23:00etan: Dantzaldia Montes Blancos taldeare-
kin.
24:00etan: Aldapa txaranga.

IGANDEA 20

10:00etan: Goiz eresia Antzinako Ama taldeko
txistulariekin eta Zuhaitzaren Soinoa taldeko txa-
lapartariekin.
11:30etan: Meza San Gregorion.
12:30etan: Kalejira Zumarragako Musika
Bandarekin.
Ondoren Irrintzi Dantza Taldearen saioa.
13:00etan: Zaldua Anaiekin kalejira.
18:30etan: Antzerkia haurrentzat.
18:30etan: Herri kirolak.
20:00: Zaldua Anaiekin kalejira.
18:30etan: Antzerkia Macraerekin.
22:00etan: Boleros 4 taldea.

EITZA KAFETEGIA

Txibiarroetan espezialitatea

☎ 943 72 35 57



BORDATXO TABERNA

Korta taberna



Josu Aztiria

Korrika: hilabete luze baten kronika (Bertsoak Korrika eta Korrikak bertsoa piztu zueneko)

Egurra jaso, aurrera akaso

Inoiz baino jendetsuagoa izan omen da AEK antolatutako Korrika. Nafarroa eta Iparraldeko euskaltegiek zinez eskertuko duten diru mordo ere lortuko zen seguru. Kanpainaren diseinuak, hedabideen jarraipenak, Jaurilaritzaren sostenguak eta abarrek eragina izango zuten, hori ziur, baina hemen egurra jasotzen dugunean bakarrik mugitzen gara. Masoka hutsak. Auzokoen espiritu eta mamuak gainean dauzkagunean nolabait. Eraso eroso hauen aurrean, beste behin ere Korrika nor izaten jarraitu nahi dugunaren aldarrikapen kolektiboa izan da.

Korrika bai, Urretxu eta Zumarragan ere bai

Korrikaren inguruan maila nazionalen egin diren balorazio positiboek Urretxu eta Zumarragarako balio dute. Sentsazio onak. Eta alor guztietatik jasotako laguntza, paregabea. Korrika Txikian izandako partaidetza eta Korrika pasa zen egunean Deskargan behera zetorren jendetza ikusita dena esanda dago, are gehiago askoren entrenamendua Urretxuko alda-pa zapatu gauean dozena bat aldiz igotzea bakarrik dela kontutan hartzen badugu. Herri erdaldun eta maketoen fama astuna arindu ote dugu?

Bertso-desafioa, kriston afizioa

Korrika Kulturalak ere izan du bere tartea. Gaztetxoentzat egindako herri-kiroletatik hasita bertsoz eta bestelakoez blaitutako astebururaino. Eta hemen egingo dugu geldialdia, bertsoz eta bestelakoez blaitutako asteburuan.

Jendez gainezka zen Amalurko infernua, baina tamalez ez genituen Legazpiarrak putzura bidali eta txapela Legazpira joan zen. Txapela Legazpira eta faktura geurera. Txapela galtzearen samina, ordea, lan izugarria egin zuten sukaldariek arindu ziguten eta afariko menua ez zela broma

frogaturik geratu zen.

Gai-jartzailaz, berriz, zer esan. Joserra Garzia eta Jose Maria Garcia nahastu zituela. Jakin badakigu Urretxu eta Legazpiren artekoa derby lazgarria zela eta ohorea baino gehiago zegoela jokoan, baina bertsoa ez da futbola, kanpeon! Eta Amalur ez da Maracana! Bestalde, bertso-desafioa dena hurrengoetarako triangularra bihurtzeko nahia azaldu dute Zumarragararrek. Ikusle pasibo izatetik akziora pasatzeko nahia. Ekipoa badago.


Bertso Eskola, bejondeiela

Bertso eskolakoek esistitzen direla frogatu zuten Fox tabernan egindako bertso-traman. Trama drama bihurtuko ote zen bel-durrez atera baziren ere, jendeak ezin hobeto pasa zuen igande arratsaldea. Batzuei paperean sartzea ez zitzaien asko kostatu, fikzioa eta errealitatea askotan gauza bera direla erakutsiz.

Bertsoa eta antzerkia elkarrekin uztartu zituzten, nahasketa baino, koktela bihurtuz. Tabernaz taberna joatea eta arlo ludiko-festiboan parekorik ez izateaz gainera arlo kulturalen ere saiatzen dira Bertso Eskolakoak. Oasi ederra basamortuaren erdian. Eta espejismorik gabe. Honelako gehiago behar ditugu. Ea aurrerantzean.

Eta orain zer?

Zer edo zer erakutsi badu aurtengo Korrikak euskaraz egin eta eragiteko jendea badagoela da, potentziala dagoela. Hortaz, euskararekin sinpatikoak diren horiek ekintzara pasa daitezela eragitea da erronka. Euskararen alde egotetik, euskararen alde egitera pasatzea alegia. Gure hizkuntzaz gutxiago hitz egin eta gure hizkuntzan gehiago hitz egitean egon daiteke kontua.



BILINTX LIBURUDENDA

EUSKAL KULTURGINTZA, S.A.

-Fermín Calbetón, 21 Telf. 420080-420224

Fax: 422363 20003 DONOSTIA

-Fermín Calbetón, 30

Telf. 422696 20003 DONOSTIA

-República Argentina, 4 Telf. 626817

Fax: 626817 20300 IRUN

-Arostegieta, z/g. Telf. 673533

Fax: 673500 20400 TOLOSA

-Ibargarai, 12 Telf. 764050

Fax: 764050 20570 BERGARA

Liburu Azokara joaten al zara? Irakurtzea atsegín al duzu?



Maria Rosario Castrillo

Bai, urtero joaten naiz Liburu Azokara. Izan ere, nahiz eta denbora gutxi dudán irakurtzea gustuko dut. Liburu Azokan haurrei libururen bat erosi ohi diet beraiek ere zaletasuna har dezaten.



Aitor, Igone, Ihintza, Mikel eta Sergio

Duela urte pare bat ikasi genuen irakurtzen eta asko atsegín dugu. Batez ere ipuiak irakurtzen ditugu, baina azkenaldian eskolan erleen bizitzari buruzko liburu bat ere irakurri dugu.



Nerea eta Leire

Liburu azokara gurasoekin joaten gara eta libururen bat edo beste erosten dugu, irakurtzea atsegín baitugu. Irakurri dugu azkena "Makilakiski" izan da.



Nerea Telleria

Irakurtzea atsegín dudán arren, ez naiz sekula Liburu Azokara joan. Ohera joan aurretik ordu laurden inguru irakurri ohi dudanez, liburu batekin hilabeteak ematen ditut.



Miren Orbeagozo

Ez naiz Liburu Azokara joaten. Garai batean irakurtzea oso gustuko nuen, baina ohitura galdu dut. Nobela historikoak nituen gustuko batez ere.



Maria Jose Lizarralde

Urtero joaten gara Liburu Azokara eta bospasei liburu erosten ditugu. Historia liburuak atsegín ditut batez ere, baina baita eleberriak ere. Irakurri ditudan azkenak "El ocho" eta Isabel Allenderen "El amigo invisible" dira.

BIONA

AROTEGIA

Altzariak neurrira

☎ eta faxa: 72 02 55
Erratzu, z/g URRETXU

Argitarapen honen ediziozko laguntzailer:

En la edición de esta publicación colabora:

kutxa

fundazioa
fundación

EDURNE

JANTZIDENDA


Piedad, 18 ☎ 943 721417 ZUMARRAGA



Lanbasa

- Dietetika
- Estetika

Bidezar, 7 ☎ 72 36 52



Keros

Enmarkatzeak
Arte ederrak
Dekorazioa
Opariak

Labeaga, 35 Urretxu ☎ 72 41 61

Hemen da

Ane Gabarain eta Ramon Agirre "Hor dago kokka" antzezlanean.



Gure bi herriotan bereziki arrakastatsua den kultur ekitaldi bat azpimarratzerik bada, Antzerki Astea aipatu behar da. Duela 14 urte jada Karmakros Antzerki Taldearen ekimenez eta bi Udalen laguntzaz hasi zen Antzerki Asteak berehala lortu zuen herritarren onespina eta honi esker urtetik urtera garrantzi handiagoa hartu du. Honela, urte hauetan guztietan, estatu mailako antzerki talde eta aktore nagusienak ikusgai izan ditugu; lehenengo Itzalon Antzokian eta azken urteotan Pagoetan.

Aurten ere, Maiatza heltzarekin bat, egun ikus daitezkeen antzezlan onenetako batzuez gozatzeko aukera izaten ari gara. Baina aurtengo eskaintzak badu alderik azken urtekoekiko. Izan ere, Urretxu-Zumarragako Antzerki Astea Antzerki Emanaldia izatera pasa da. Honek emanaldi guztiak aste berean izan beharrean urte guztira luzatuko direla esan nahi du. Joan den larunbatetik azarora bitartean 8 antzezlan izango ditugu ikusgai, denak larunbateetan Vaivenen "Lotsa-gabe" izan ezik. Dena den, maiatzak ez dio Urretxu eta Zumarragako antzerkizaleen

hil kuttunena izateari utzi, bere hogeita hamaika egunetan bost antzezlan izango baitira Pagoeta Antzokian.

Egitaraua urte guztira luzatzearen arrazoia argia bezain ulergarria da: azken urteotan Pagoetan Antzokian unean-une

Antzerki Astea Antzerki Emanaldiak izatera pasa denez...

antzezlanik arrakastatsuenak izan ditugu ikusgai eta hauek guztiak gure bi herriotara ekartzeko aurrekontu oso altua behar da. Aurrekontua estaltzeko Eusko Jaurlaritzaren dirulaguntza ezinbestekoa zen eta aurten Jaurlaritzako Kultura Sailak bere laguntza Antzerki Astei eman beharrean urte guztian luzatzen diren eskaintzei ematea erabaki du. Hau ikusirik, Urretxu-Zumarragako Antzerki Asteak bere formatua aldatu behar izan du.

Herriko antzerkizaleen artean

maiatzeko aste batean egunero antzerkira joateko ohitura oso sustraitua badago ere, aurtengo egitaraua ikusirik, formatu aldaketa ez litzateke Pagoetara ez hurbiltzeko aitzakia izan behar. Udaberrian eta udazkenean sakabanatuta izan arren, aurten ere estatu osoan sekulako arrakasta izaten ari diren antzezlanak izango baititugu ikusgai.

Emanaldiei hasiera aurten gure artean birritan izango dugun Tanttaka taldeak eman zien joan zen larunbatean "Hor dago kokka" antzezlanarekin. Larunbata honetan, berriz, Esteve eta Poncek "Mala leche" antzeztuko dute.

Datorren asteko emanaldiak, berriz, antzerkizale gazteenei zuzenduta daudela esan daiteke. Izan ere, gazteentzako eta haurrentzako antzezlan bana izango dira ikusgai. Asteartean, eguerdiko 12etan, Vaiven taldekoek "Lotsa-gabe" antzezlan aurkeztuko dute. Antzezlan honetan iaz ETB1eko Sorginen Laratza saioan ikusi genituen hainbat aktore gaztek sexuaz hitz egiten dute, baina zehazkiago HIESaz, homosexualitateaz, maitasunaz, konplexuez eta gazteei kezkatzen dieten beste

antzerkia!

hainbat kontuz. Antzezlanak zenbait erantzun ematen ditu, baina era berean gazteek sexuaz gogoeta egitea eta galdetzea lortu nahi du. Hilaren 18an haurrek ere antzerki-az gozatzeko aukera izango dute, Hortzmuga taldeak Rekolore ikuskizuna eskainiko baitie arratsaldeko 5etatik aurrera Areizaga-Kalebarren enparantzan.

Astebete beranduago, hilaren 25ean, Teatro Meridional taldeak "Qfwfq, una historia del universol" antzeztuko du Pagoeta Antzokian. Antzezlan hau Italo Calvinoren Las Cosmicómicas liburuko sei istorioren moldapena da eta gizakiaren izaera tragikomikoa azpimarratzen du. Bertan 36ko gerra ondorengo familia nekazari espainiar bateko kideek unibertsoaren garapena azalduko digute, txapela buruan dutela, jotak kantatuz... baina zientzilari batek egingo lukeen zorrotasunaz.

Ekainaren 1ean Tanntaka taldearen bigarren antzezlanaren txanda iritsiko da. Oraingo honetan "Errudun jaiok" aurkeztuko dute iluntzeko 10etatik aurrera Pagoeta Antzokian. Antzezlan hau Peter Sichroskyk nazien seme-alabekin izanda-

ko elkarrizketetan jasotako testigantzetan oinarritua dago, hori dela eta ez dugu ohiko antzezlan. Aktoreak eserita eta ikuslegoari begiratu gabe daude taula gainean eta euren aurpegia aurrean duten kamerak jasotzen dituen irudien bitartez ikusiko dugu aurrez-aurre izango dugun pantaila erraldoian.

...maiatzean eta udazkenean ditugu aurten antzezlanak

Antzezlan honen ondoren antzerki emanaldiak etenaldi bat izango du eta udazkenean itzuliko da, urriaren 19an hain zuzen ere, Traspasos taldearen "Pepe el romano" lanarekin. Hilabete beranduago, azaroaren 16an, Ados taldeak aurtengo Antzerki Emanaldiari amaiera ezin hobea emango dio "Manolito gafotas" antzezlanarekin. Irratiaren, liburuen eta zinearen bidez ezagutu dugun haurra antzerkian

ikusteko aukera izango dugu, beraz, aurtengo Urretxu-Zumarragako Antzerki Emanaldiei agur esan aurretik.

Emanaldiak aste bakar batean pilatuta egotetik zenbait astetan sakabanututa egotera pasa bada ere, aurten ere antzezlan bikainak izango ditugu ikusgai eta urteroko moduan bonoa ateratzerik izango da. Bonoak 3.000 pezeta balio du eta udaberriaren izango diren "Hor dago koxka", "Mala leche", "Qfwfq, una historia del Universo" eta "Errudun jaiok" antzezlanak ikusteko aukera eskaintzen du (maiatzeko gainontzekoak doan). Txarteldegitik pasatuz gero, berriz, antzezlan bakoitzeko sarrerak 1.000 pezeta balio du.

Bonoak udaberriko antzezlanetako bakarrik balio duen arren, bonoa erosten duzuenoi hau udazkenean arte gordeztea komeni zaizue. Izan ere, bonoa aurkeztuz gero sarrera merkeagoa izango baita. Bestalde, Zumarragako eta Urretxuko udaletako Kultura Batzordeek, ordurako zabalik bada, bi antzezlan hauek Zelai-Ariziti berrian eskaintzea espero dute.



Juan Luis Mendiaraiz: "Euskal antzerkia bere punttuan dago"



Antzerki Astea heltzen denean Pagoeta Antzokian biltzen den jendetzak argi erakusten du Urretxun eta Zumarragan antzerkizaletasunak indar handia duela, baina ez da hau bi herriotako antzerkizaletasunaren isla bakarra. Izan ere, Urretxu-Zumarragako Antzerki Eskolako kideek edota gure bi herriotatik kanpo lanean ari diren antzezleek ere hemen afizio handia dagoela agerian uzten baitute. Hori dela eta, urte askotan Antzerki Astearen urretxuarrak eta zumarragararrak taula gainean ikusteko aukera

izan dugu eta aurten ere hala izango da.

Ekainaren 1ean ikusgai izango dugun "Errudun jaiok" antzezlanean Aitor Gabilondo eta Juan Luis Mendiaraiz lanean ikusiko ditugu eta azaroaren 16an, berriz, Juan Luis Escudero ikusiko dugu "Manolito gafotas" antzezlanean. Egun Sorian bizi den Juan Luis Mendiaraiz herrian zela jakin genuenean berari deitu eta apirileko gau batean goizeko ordu txikieta ere luzatu zen solasaldia izan genuen berarekin.

Nondik datorkizu antzezaletasuna?

Haurra nintzela, Errioxan oporretan ginela, jendaurrean birao bat bota eta ingurukoak farrez hasi ziren. Hitzak zuen indarra ikusi eta txunditu egin nintzen, zer esaten ari nintzen ere ez nekien arren jendearengan erreakzioa sortu bainuen. Nik uste ordutik datorkidala jendaurrean antzezteko zaletasuna.

Antzerki eskolaren batean aritu al zara?

Bartzelonara joan nintzen zinea egin nahi nuelako eta optika, muntaia, gidolaritza, zuzendaritza... ikasi nituen. Zuzendaritzarako behar ziren hainbat arlo, hain zuzen ere. Hona itzuli nintzenean tekniko batekin hitz egiten banekiela baina aktore bati gauzak adierazten ez nekuela konturatu nintzen. Hau konpontzeko an-

tzerki eskola batean sartu nintzen eta bertan aktorearen izaeraz jabetu nintzen, orduz gozotik honetan nabil.

Makina bat antzezlanetan parte hartuko zenuen...

Hala da, bai. Hamaika antzezlanetan parte hartu dut estatu osoan, baina euskal antzerkia azken bolada honetan dago bere punttuan. Jende askok "¡Qué cojones pasa allá!" esaten digu. Izan ere, karteleretan begiratu eta "Manolito gafotas", "El florido pensil", "El porqué de las cosas"... aurki ditzakegu: denak estatu mailan mugitzen ari diren Euskal Herriko antzezlanak. Beraientzat orainarte Euskal Herriko antzerki taldeak ezezagunak ziren, orainarte ez baikenuen bertara joateko aukerarik. Orain bertara joateko produkzio eta diru aldetik baldintzak bete dira eta

gainera gu ia edozein lekutan antzezteko prest gaude, nahiz eta baldintzak onenak ez izan. Bestalde, lan hauetako asko farregurezkoak dira eta "eskopeta artean" bizi garenok farregurezko gauzak egitea harritu egiten ditu.

Garai batean "Bi eta bat" telesail arrakastatsuan ere aritu zinen...

Egia esan, antzerkian lan egitea nahiago dut, baina onartu beharra dago telesail hau oso garrantzitsua izan zela euskal telesailen ekoizpenaren historian. Gidoi aldetik sekulako kalitatea zuen eta ez zion inongo enbidiarik beste edozein telesaili. Dena den, garai hartan gauzak lasaiago egiten ziren telebistan, orain, berriz, azkarrago lan egiten da.

Zertan zabiltza azkenaldian?

Azken urteotan Agatha Christieren "La ratonera" antzezlanarekin estatuan gora eta behera aritu gara eta beste antzezlanik ikusteko denborarik ere ez dut izan. Orain, berriz, "Errudun jaiok" antzezlanarekin nabil, euskaraz zein gaztelaraz, eta hemendik ordu batzuetara Oviedora noa antzeztera.

Deskribaiezaguzu "Errudun jaiok" antzezlanana...

Oso modernoa da, muntaia handia denez ez dakit Pagoeta Antzokian kabituko garen ere... Publikoa hamaika antzelean atzealdean dago, gu beste hainbeste aulkitan eserita azaltzen gara eta gure aurrean kamera bat dago. Kamerak hartzen duena eskenatokian, gure gainean dagoen pantaila handi batean azaltzen da. Ez dakit Ikastolako haurren antzezlanentzat eгина den antzoki batean guztiok sartuko garen... Ni frontoietan ere lan eгина nago, baina pilotariak antzokietan ikusi arte ez genuke gehiagotan egin beharko.

Dena den, badirudi aurten zabalduko dela Zelai Arizti berritua...

Zabaltzen dutenean eskenatokira igo eta begiak itxi nahi ditut, ea zer entzuten den... Ea ez den zabor biltzaileen kamioia kargatzen entzuten! Behin antzokia prestatuko eta hori entzun behar al da? Egin ditzagun gauzak behar bezala: nondik kargatu, butaken erosotasuna, musika, oihartzuna... kontuan hartu izana espero dut. Gauzak asmatuta daude: Meridan, Siracusan... goi-goian dagoenak ere antzeleak primeran entzuten ditu eta antzoki berri askotan, berriz, builaka aritu behar izaten gara. Arkitektua deskargatzen jarriko nuke antzoki berri askotan, hurrengoan hori ere kontuan izan dezan!

**Zer moduzko harre-
ra izaten ari da**

Urretxura ekarriko duzuen antzezlanak?

Antzezlan handia da, hamaika lagunek parte hartzen baitugu eta beraz ez dut uste denbora oso luzean arituko garenik antzezlan honekin. Dena den, orain arte harrera ona izan du. Leioako kanpusean izan ginen duela gutxi eta bertara joaten garen bakoitzean autobusa hartzeko ordua heltzen denean ikusleek alde egiten dutela ikustera ohituak gaude. Baina azkenekoan, ordea, autobusa hartzeko ordua heldu zen arren, ikusleek areto nagusian jarraitu zuten.

“Errudun jaiok lanak orain arte harrera ona izan du. Leioan lehenengoz ikasleek ez dute autobusaren ordua heldu denean alde egin”

Nolatan urretxuar bat Sorian?

Neska bertakoa dut eta badakizu... "Se ama a una ciudad cuando se ama a uno de sus habitantes". Lasai asko bizi naiz bertan, baratzean lanean, lorak zaintzen... Hiriburuak 35.000 biztanle dituen arren, hemengo herri txiki baten antzekoa


da. 158 herri daude Soria herrialdean, baina oso biztanle gutxi bizi dira bakoitzean. Han ez dute biztanleen kontaketa egiten, herri bakoitzean zabalik dauden etxeetako ateak baizik. "Zer moduz Sorian" galdetzen dutenean "Oso gaizki" erantzun behar da, inor hango lasaitasuna haustera joan ez dadin. Rivaldo bera ere autobusean joan behar izan da!

Soriako antzerki taldeekin harremanik ba al duzu?

Neskalagunarekin eta beste batzuekin batera hiru muntaietan lanean ari naiz. Umeentzako "La cenicienta", Kafkaren "Informe para una academia" eta Orwellen "La granja" prestatu ditugu eta Soriako herrietan antzezten ari gara. Han antzerkizaletasuna bultzatzen saiatzen gara, ez diruaren truke, kapritxo moduan baizik.

**Zer diozu Urretxu-
Zumarragako Antzerki Asteari buruz?**

Beharrezkoa da eta goruntz doala esango nuke. Uste dut bitan izan naizela hemen lanean eta oso zaila da. Izan ere, beste edozein lekutan jendeak pertsonaia ikusten du, baina hemen oso zaila da jendea pertsonaia sinesgarria egitea, denek Juanlu ikusten baitute.



Errudun jaiok antzezlanean pantaila erraldoi baten bidez ikusiko ditugu aktoreen aurpegiak.

“Zaldibarko Trikitixa” eta Urretxu

EITBk urtero antolatu ohi duen trikitixa saioaren iazko ekitaldian Zumarragako Trikitixako Joxe Urteaga omendu zuten moduan, aurten, martxoaren 18an, Juanito Garate "Maltzeta" azkoitiarra eta Joxe Mari Iriondo "Zaldibarko Trikitixa" izan dira omenduak. Azken hau Bergaran jaio bazen ere, bost urte zituela Urretxura etorri zen bizitzera eta bertan bizi izan zen hemeretzi urte zituela Zaldibarretik asteroko erromeria berpizteko deitu zioten arte. Bizkaitarrek astero jotzeaz gain lana ere eskaini zioten eta bertan eman ditu azken 50 urteak. Dena den, arreba eta gaztetako lagunak Urretxun dituen sarritan gure artean izaten dugu. Aurtengo saioan omenduetako bat erdiurretxuarra zela jakin genuenean, berarengana joan ginen eta solasaldi interesgarria izateaz gain, "Zaldibarko Trikitixa" Euskal Herria osoan ezaguna egin zuen "Kalean nago Kalean" trikiti pieza ere eskaini zigun.



Argazkia: Euskaldunon Egunkaria.

Nolatan joan zinen Urretxura bizitzera eta zer oroitzapen dituzu bertan emandako urteez?

Bost urte nituela, gerra denboran, joan ginen Urretxura eta bertan ditut haurtzaroko oroitzapenak. 16 bat urterekin Madayan hasi nintzen lanean eta giltzen saila Irimon jarri zutenean bertara joan nintzen lanera. Urretxun hasi nintzen soinua jotzen eta Urretxuko Zabaleta baserriko Balentinenean ezkontza batean, Elosun hain zuzen ere, 13 urterekin. Herrira landareak saltzera etortzen zen Felix Belar zaldibardarrak gerra-aurretik bertan egiten zen iganderoko erromeria berpiztu nahian zebiltzala esan zidan eta bertan jotzeko aukeraz gain lanpostua ere eskaini zidanez, Zaldibarrera etorri nintzen. Azken 50 urteak hemen eman ditudan arren, arreba Urretxun dudanez, sarritan joaten naiz bertara. Kintoen bazkarira ere urtero joaten naiz eta hala lagun zaharrek inguruko aukera izaten dut.

Nolatan hasi zinen trikitixa jotzen?

Esan didatenez, oso txikitatik

izan dut musikazaletasuna: 4 urte soilik nituela aho-soinuaz Andre Madalen jotzen omen nuen! Dena den, ez da harrizkoa nire musikazaletasuna, familian oso musikazaleak baitziren. Osaba batek, aitak eta amak soinua jotzen zuten eta ni osabaren soinuarekin hasi nintzen jotzen. Ama haurra nintzela hil zitzaidan, baina esan dida-

“Zabaleta baserriko Balentinenean jo nuen lehenengoz ezkontza batean”

tenez soinua jotzen bazekien. Dena den, gizonetakoekin soinua jotzea ere gaizki ikusia zegoenez, jendaurrean amak jotzerik ez zuela izan esan beharrik ere ez dago.

Nork erakutsi zizun trikitixa jotzen?

Besteei begira ikasi nuen eta solfeoaz dakidana ere neure kabuz ikasi dut.

Izan ere, Urretxuko Oletxea organistarekin ikasten hasi nintzen arren, handik gutxira morroi hasi nintzen eta akabo nire ikasketak! Hala ere, partiturak irakurtzen ikasi nuen eta pieza batzuk sortu ditut horri esker, hauetako batzuk 1992 arte antolatu genuen Zaldibarko Trikitilari Gazteen Txapelketan jo behar izaten zituzten trikitilarietara joan eta trikitilarietara begira egoten nintzen. Ondoren ni ere plazarik plaza aritu naizenez, ez dut sekula dantza asko egiterik izan!

Jendaurrean 14 urte bakarrik zenituela hasi zinez, makina bat plazatan arituko zinen...

Hamaika ezkontzatan jotzeaz gain, lehenengoz Unanuan saxofoia eta bateriarekin jo nuenetik makina bat herri-tan izan naiz. Baita Urretxu inguruan ere: Ormaiztegin, Salbatoren, Eitzan... Dena den, Bizkaian jo dut gehienbat. Zaldibarren igandero erromeria izaten genuen, uda partean baita ostegunero ere, inguruko herri txiki guztietako erromerietan jo izan dut, ia larunbatero ezkontzetan

jotzen nuen... Zaldibarren, artean estali gabe zegoen pilotalekuan jotzen nuen eta eguraldi txarra zenean herriko taberna batean sartu, mahaiak baztertu, eta bertan egiten genuen erromeria.

Dena den, benetako ospea diskoa grabatu ondoren lortu zenuen...

59an Arrate Irratirako abesti baztuk grabatu genituen eta egunero laupabost aldiz jartzen zituzten entzuleek eskutata. Columbia disketxekoek hau ikusi eta diskoa grabatzea eskaini zidaten. Panderojolea eta izen artistikoa behar nitueenez, Benito Osa zaldibardarrarekin elkartu eta "Zaldibarko Trikitixa" izenarekin bi disko grabatu genituen. Irratietan asko entzun ziren eta dirudienez saldu ere ondo saldu ziren, Columbiakoek beste disko bat grabatzea eskaini baitzidaten. Baina nik ezetz esan nien, besteengatik 1.000 pezeta soilik eman baitzizkiguten eta ez baikenuen egile-eskubiderik izan.

Asko aldatu al dira erromeriak urte hauetan guztietan?

Ni gaztea nintzenean ez zegoen trikitilari gehiegi eta trikitixa desagertzen ari zela esango nuke. Santa Lutzitako ferira, adibidez, Elgeta, Sakabi, Arbe eta Ahuntza joaten ziren eta hauetaz gain ez zegoen askoz gehiago. Baina gero, besteak beste, Laja, Zumarragako Trikitixa eta ni neu hasi ginen eta 50-70 urteen artean erromeriek euren sasoi onena bizi izan zutela esango nuke. Gero "Sala de fiestas" direlakoek arrakasta hartu zuten eta erromeriak gainbera hasi ziren. Egun, berriz, trikitilariak askotan enbarazuan daudela dirudi. Lehen

soinua jo eta denak dantzara ateratzen ziren eta gaur egun dantzara ateratzen direnak dira bereziak.

Zuk zeuk noiz utzi zenion jendaurrean jotzeari?

Lehenengoz enkargatu lanean hasi nintzenean utzi nuen, 63an, larunbatetan ere lana egin beharra bainuen. 74an berriro hasi nintzen ezkontzetan eta erromerietan jotzen, baina 80 hamarkada erdialdean behin-betiko utzi nuen. Izan ere, esan bezala, ezkontzetan eta erromerietan giroa ez zen jada lehengoa. Dena den, etxean ia egunero entsaiatzen jarraitzen dut eta bazkari eta afarrietan ere jotzen dut... soinua gustura entzuten duen jendearen aurrean soinua jotzea gustukoa baitut.

Hainbeste urtetan soinua bizkarrean eman ondoren, anekdotarik izango duzu...

15 bat urte nituela Urretxuko gazte koadrila bat Erniora joan ginen egunpasa. Errezilen gelditu ginen hamarretakoa egiten eta soinua jotzen hasi nintzen. Lagunak dantzan hasi ziren eta tabernatik emakume bat atera zen dantzan ari zirelako errietan. Erniotik jaisi ginenean Azkoitin gelditu ginen eta bertako musika banda valsa jotzen hasi zenean Urretxuko neska-mutilak helduta dantza egiten hasi ginen. Udaltzaina etorri eta guri makilka hasi zitzaigun! Izan ere, garai hartan herrietako apaizek herri batzuetan helduta dantza egiten uzten zuten eta besteetan ez. Aizpurutxoko erromeria, esaterako, Bergarako aldean egiten zen, Azkoitikoan ez baitzegoen helduta dantza egiterik.



1952an Joxe Mari Iriondok (trikitixa eskuartearen duela) Urretxuko lagunekin Gernikako Arbola enparantzan ateratako argazkia.




RENEDO argazkiak
 Jaunartzeak • Bataioak • Ezkontzak
 Labeaga 52-54 F. URRETXU
 ☎ 725682 ☎ 722292



MAPFRE
 Aseguru etxea
 S.Esnaola, 6 ZUMARRAGA
 ☎ 72 20 00 faxa: 72 24 00

PLAZAOLA
ITURGINTZA
 Bide-Zar 5 ZUMARRAGA
 943 72 13 70



ARKUPE
TABERNA

UROLA
ELEKTRATRESNAK
 ☎ 943 72 02 15 - Faxe 943 72 52 91
 Secundino Esnaola 2, ZUMARRAGA

Biba Xiberua!

Zuetako askok jakingo duzuen moduan, Urretxu-Zumarraga eta Zuberoa elkar-ezagutzeko eta Zuberoako "Xiberoko Boza" irratia alderantzizko "Biba Xiberua" ekimena aurrera ateratu dute herriko hainbat taldek "Xiberoko Boza"ko lagunekin batera. Joan zen asteburuko mendi irteerak hasiera prestatutako egitarauari hasiera eman zion, baina gainontzeko ekitaldi guztiak maiatzaren 28a eta ekainaren 10a bitartean izango dira.

Euskal Herriko sei herrialdeetako bat izanik ezezagunegia zaigun Zuberoa ezagutzeko asmoz ekimen bat antolatzeko ideia Zuberoako musika talde batek Urretxun eskaintako kontzertuan sortu zen. Taldeko partaideetako bat eta Xiberoko Boza irratiko zuzendaria den Maritxu Kastillonek afalostean urretxuarrei herri herri irratia erantzat dirulaguntza lortzeko jaialdi batzuk egiten ari zirela esan zien eta Urretxun ere antolatzea proposatu zuten.

Urretxuko Ostebi musika taldeko Juan Luis Aranburuk taldekideei zuberotarren proposamena jakinarazi zien eta aurrera ateratzea erabaki zuten. Horretarako bi herriotako beste hainbat taldetako lagunak (Aldirikoak, Bisasti Euskaltegikoak, Ttipi-Ttapakoak, Zintzo-Mintzokoak, Goierri eta Ostadarrekoak) bilera batera deitu zituzten.

Talde hauetako lagunek jaialdia oso begi onez ikusi zuten, baina motz gelditzen zela iruditu zitzaizkien. Hori dela eta, zuberotarrek harremana elkar ezagutzeko eta harremanak sakontzeko ere erabiltzea erabaki zuten. Poliki-poliki antolaketa mahaian jende gehiago bildu zen eta egitaraua prestatzen hasi ziren Maritxuren laguntzarekin.

Zenbait hilabetetako lanaren ondoren, egitarauaren prestaketa amaitu dute eta esan bezala, maiatzaren 5eko ekitaldiak ekitaldiei hasiera eman bazien ere, hilaren 28tik aurrera izango dira ekitaldi gehienak. Antolatzailen esanetan "sekulako aldea dago hegoaldeko herrien eta Zuberoako artean. Urte askotan



Zuberoako Urdirarbetarrek taularatu zuten Iparragirre pastorala.

Añamendiko mendiak mugarririk izan dira. Hau gaitzeko asmoa duen ezagutze ekimen honek arrakasta izatea espero dugu". Bestalde, ekimenaren bigarren helburua Xiberoko Boza irratia alderantzizko dirulaguntza lortzea da: "Xiberoko Boza irratia sekulako lana egiten du euskararen

Zuberotarrak ekainaren 9an etorriko dira Urretxu-Zumarragara

alde, Zuberoako euskarazko irratia bakarra baita. Ez dute ia laguntza ofizialik eta etxez-etxe ibiltzen dira laguntza eske. Orain euren lana txukun egin ahal izateko lokal berri bat erosi dute eta hau hornitzeko dirulaguntza ezinbestekoa dute. Ea Urretxun eta Zumarragan horretan laguntzen diegun!".

Hau guztia helburu, maiatzaren 5ean herritarrek Zuberoako mendiak ezagutzeko aukera izan zuten. Maiatzaren 28tik ekainaren 10era bitartean, berriz, Zuberoari buruzko erakusketa, ikastetxeetan Zuberoari buruzko lan didaktikoa, hitzaldiak, Zuberoako herriak eta Xiberoko

Boza irratia ezagutzeko asteburuko txangoa, diaporama eta zuberotarren asteburuko bisitaldia izango ditugu. Zuberotarrak ekainaren 9an, arratsaldean, helduko dira Urretxu-Zumarragara eta ongietorriaren ostean hango dantzariak eta hemengoek kalejira egingo dute. Afalostean, berriz, jaialdi ikusgarria izango da Gernikako Arbola enparantzan.

Igandean Zuberotarrek gure inguruko leku interesgarriak ezagutzeko aukera izango dute eta anaikidetasun bazkariaren aurretik kantu kalejira eskainiko dute taberna ezberdinen inguruetan zuberotarrek eta Urretxu-Zumarragarrek osatu duten musika taldeak. Bazkalostean agurra eskainiko zaie eta betirako anaikidetasun besarkada izango da.

Hilaren 28tik aurrera, beraz, gertu egon arren gehiegitan urrun ikusten ditugun Zuberoa eta bertako euskaldunak ezagutzeko aukera bikaina dugu. Ea "Biba Xiberua" ekimenak eskaintzen digun aukeraz baliatuz udaberri honetatik aurrera behin-betiko Irunera heldu orduko geure buruan muga irudikatzeari uzten diogun. Hala izan dadin, zuberotarrek eta Urretxu-zumarragarrek ez dute ekimen honi esker sortu den harremana ekainaren 10ean amaitzea nahi. Hori dela eta, ekimen ezberdinen bidez harremana urteetan luzatzeko asmoa dute.

Egitaraua

Maiatzak 28-Ekainak 9: Zuberoari buruzko erakusketa Urretxuko eta Zumarragako Erakustokietan

Bertan aurkituko dugu:

- Zuberoako argazkiak (laborariak, herriak, kultura, gizartea, geografia...), eta kartelak.
- Panel didaktikoak (4): 1-Zuberoako karta (herriak, mendiak, ibaiak, leku ikusgarriak); 2- Zuberoako datuak grafikoetan (biztanlegoa, ekonomia, hizkuntza...); 3- Zuberoako datu historikoak; 4- Zuberoako pertsonai ospetsuak.
- Jantziak (Maskaradetako jantziak, espartinak,...)
- Musika instrumentuak (txanbela, txirula, ttun ttuna, ...)
- Bideo-erreportai baten muntaketa (pastoralak-maskaradak-Zuberoako dokumentalak...).
- Monitore gidatzaile batek, erakusketaren berri eman ahal izango du (bisita gidatuak)

Maiatzak 28-Ekainak 1: Zuberoa ezagutzeko lan didaktikoa: Ikastetxeetan

- Helburua: Ikastetxeetako ikasleei Zuberoako informazioa ematea.
- Txosten didaktikoak Zuberoari buruzko arlo ezberdinak jorratuko ditu;
- Egilea Txomin Peillen izango da. Zuberotarra eta euskaltzaina; Biologian lizentziatua, euskal letretan doktoratu zen, eta gaur egun euskara-irakaslea da Baionako Fakultatean.
- Irakaslegoari Zuberoako materiala eta ariketak banakutuko zaizkie, gaia landu dezaten.
- Bisitaldi gidatuak egingo dira Zuberoari buruzko erakusketari.

Ekainaren 1ean, Ostirala goizean: Ikasleentzako hitzaldiak

- Goizean zehar, Txomin Peillenek Urretxuko Pagoeta Aretoan Ikastetxe ezberdinetako ikasleei hitzaldi bat eskeiniko die, eta txostenaren berri emango du.
- Zuberoako gaia 4. D.B.H.ko ikasleei eskeiniko zaie, bai Lizeoan, institutoan eta Langile Eskolan.

Ekainaren 1ean, Ostirala arratsaldean: Zuberoari buruzko Hitzaldia Legazpi Dorretxean

- Aldez aurretik Zuberoari buruzko bideo dokumentala eskeiniko da.
- Aurkezpena: Zuberoari buruzko txosten didaktikoa, eta Zuberoari buruzko web orri berria.
- Txomin Peillenen Hitzaldia; partaideak: Aurkezle bat, Txomin Peillen, eta Jean Mixel Bedaxagar abeslaria, laguntzaile gisa.

Ekainak 2-3 asteburua: Txangoa-ibilaldia (II) : Zuberoa ezagutzeko ibilaldia

Eskeintza edonorrentzako irekia izango da.

- Helburua: Zuberoako herrialdea ezagutaraztea (geografia,gizartea,ekonomia,hizkuntza...)
- Plana: Ekainaren 2a, larunbata: Maulera iritsi ondoren, bertako lantegi bati bisitaldia; Etxe-laborari bati bisitaldia; "Xiberoko Botza" irriaren bisitaldia; Bazkaria; Zuberoa barneko hainbat herri eta gune turistikoak ezagutu; Afarria-jaialdia (txalaparta-trikitixa-bertsolariak...) Ekainaren 3a, igandea: goizean Muskilditik San Antonioko baselizarako ibilaldia (ordubeteko ibilbidea); Bertan erromeria, bazkaria eta jaialdia (Urretxuko txalapartariak, barruan Zumarragako ezpatadantza eskeiniko da, "Ostebi" taldeko kantaldia, Trikitilariak, bertsolariak); ondoren Urretxu-Zumarragarako bueltatzea.

Ekainaren 8an, ostirala arratsaldeko 8etan: Legazpi Dorretxean Zuberoari buruzko Diaporama

Zuberoako irudiak diapositibetan, Zuberoari buruzko musika, eta bertako idazleak Zuberoari buruzko poesiak edota irakurgaien bitartez, sortutako diaporama (Hitza-Irudia-Musika).

Ekainaren 9an, arratsaldeko 4 t'erdietan: Zuberotarrei ongi etorria Areizaga-Kalebarrenen

·Harreran, "Zuhaitzaren Soina" Txalapartariak, Txistulariak, Trikitilariak,... egongo dira

Ekainaren 9an, larunbata arratsaldeko 6 t'erdietan: Dantzarien Kalejira

- Partaideak: Atharratzeko dantzariak, Lurra dantza taldea, Irintzi dantza taldea, Aldiri erraldoien konpartsa, Zumarragako txistularien elkarte.
- Ibilbidea: Lizeoko parkealparragirre plazaGernikako Arbola plazaZumarragako plazaAreizaga-Kalebarren plazan dantzarien saio berezia.

Ekainaren 9an, larunbata gaueko 10 T'erdietan: Jaialdia Gernikako Arbola enparantzan

·Zuberoako partaideak (Maddi Oihenart,Mixel Etxekopar,Mixel Arotze; "Lagünak" taldea, "Tehenta" kantari taldea; eta Atharratzeko dantzariak).

·Bertako partaideak (Hegoaldeko kantari ospetsu bat, bertsolariak, txalapartariak, musika taldea, poetak, ...)

·Jaialdian zehar, Zuberoari buruzko irudiak-diapositibak emango dira (paisaiak, herriak, jendea...).

·Bertan, laguntzaileen lana eskertuko da, eta "Xiberoko Botza" irriaren berri izango da.

Ekainaren 10ean, igandea goizeko 11etan: Urretxu-Zumarraga inguruko ezagupena

·Zuberotarrei gure inguruko leku interesgarriak ezagutzeko aukera eskeiniko zaie.

·Lekuak: Antzinako Ama baseliza, Legazpi dorretxea, Santa Barbara, Ipenarrieta dorretxea, Mirandaolako burniola,....

·Urretxu-Zumarragako udaletxei bisitaldia eta bertako agintariei agurra eta esker ona.

Ekainaren 10ean, igandea eguerdiko 12 T'erdietan: Kantu Kalejira

·Zuberotar eta Urretxu-Zumarragako sorturiko musika-taldearekin kalejira

·Taberna ezberdineko inguruetan, Zuberoako eta bertako euskal kantuak abestuko ditugu.

Bazkaldu eta bazkal ostekoan ondoren Zuberotarrei Agurra eta betirako anaiakideen besarkada.

MAIATZEKO AGENDA

10, osteguna

-16:00etan, Kultur Etxean, Elikadura eta osasunari buruzko tailerra. (Mairi).
-19:00etan, Legazpi dorretxean, Andu Lertxundiren "Los días de la cera" azken liburuaren aurkezpena.

11, ostirala

-10:00etan, Pagoeta Antzokian, antzerkia: "Mala leche", Esteve y Ponce taldea.

15, asteartea

-12:00etan, Pagoeta Antzokian, gazteentzako antzerkia: "Lotsa-gabe", Vaiven producciones taldearena.

18, ostirala

-Museoen nazioarteko eguna dela eta, herriko ikastetxei Mineral eta Fosilen

Museoan bisitaldi gidatuak egiteko aukera eskainiko zaie.

-17:00etan, haurrentzako antzerkia: "Rekolore", Hortzmuga taldearena.

Zumarragako Euskadi enparantzan elkartu eta hortik Kalebarren-Areizaga plazara abiatuko dira.

-22:00etan, Legazpiko Latxartegi aretoan, antzerkia: "El hombre que confundió a su mujer con un sombrero", Txalo produkzioak taldearena.

20, igandea

-Iñaki Beitiaren omenezko Mendi Martxa.

23, asteazkena

-Kultur txangoa Peñaranda de Duerora. "Mairi" emakumeen elkarte.

25, ostirala

-22:00etan, Pagoeta Antzokian, antzerkia: "QFWFQ, una historia del universo".

26, larunbata

-Mineralogi eta paleontologi txangoa: Errioxako paleontologi aztamategiak. Izen-ematea Kultur Etxean.

27, igandea

-Mendi irteera, Goierri K.E.: Errobi. Beherobi-Erozate-Mendiziar-Orbaizeta.

28, astelehena

-18:30etan, Legazpi Dorretxean, Secundino Esnaola Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

29, 30, 31 eta ekainaren 1ean

-18:30etan, Legazpi Dorretxean, Secundino Esnaola Musika Eskolako ikasleen kontzertua.

Ekainak 1, ostirala

-22:00etan, Pagoeta Antzokian, antzerkia: "Errudun jaiok", Tanttaka taldearena.

(Eitzako Jaien eta "Biba Zuberoa" ekimenaren egitarauak 7. eta 17. orrialdeetan).

Astero:

-Astelehenero, 16:00etan Kultur Etxean, eskulanak bazkideen artean. Mairi emakumeen elkarte.

-Larunbatero, Kultur Etxean, ikastaroa: Karrozak egiteko teknikak. Dohainik. Izen-ematea: Kultur Etxean.

-Larunbatero, 11:00etan, Kultur Etxean, Larunbatetan festara. Haurrentzako eskulanak.

Erakusketak:

-Maiatzaren 4tik 13ra bitartean, Itarte Etxean, Xabier Gabilondoren pintura lanak.

-17:30etan, Juan de Lizarazun, "Birziklaketa" erakusketa. Ikastolako haurren lanak. Maiatzaren 17ra bitartean.

-Maiatzaren 18etik 27ra bitartean, Itarte Etxena, Gazte txoan egindako eskulanak.

Lehiaketak:

-2001ko Santa Isabel Jaietako egitarauaren azala aukeratzeko lehiaketa. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 11n amaitzen da.

- XIII. Pintura lehiaketa Lanak aurkezteko epea irailaren 7an amaitzen da. Lekua: Urretxuko Kultur Etxea

- Argazki lehiaketa 2001 Lanak aurkezteko epea irailaren 7an amaitzen da. Lekua: Zumarragako Udaleko Kultura Saila.

-Eskolarteko XIV. Bertso-paper lehiaketa Urretxu edo Zumarragan ikasten duten eskolumeentzat. Lanak aurkezteko epea maiatzaren 11n amaitzen da.

A maila: L.H.ko 5. eta 6. mailetakoa. 2 bertso edo 4 koplak idaztea. Gaia: Handitzean, telebistako aktore izan nahi nuke.

B maila: D.B.H.ko 1. eta 2. mailetakoa. 2 bertso idaztea. Gaia: Zerk edo zeinek galerazten dizu loa?

-Narratiba eta Poesiako Iparragirre saria 2001 Lanak aurkezteko epea: irailaren 7an amaitzen da.



Goi-mailako Lanbide Heziketako B. Institutua Miguel ALTUNA



2001-2002 ikasturterako HEZKUNTZA-ESKAINNTZA


GOI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Administrazio eta finantzak
- Erregulazio eta kontrol sistema automatikoak
- Mekanizazio bidezko produkzioa
- Proiektu mekanikoen garapena
- Plastiko eta kautxogintza
- Idazkaritza (2 hizkuntza: ingelera eta frantsesa)

ERDI MAILAKO PRESTAKUNTZA ZIKLOAK

- Mekanizazioa
- Ekipo eta instalazio elektroteknikoak
- Administrarritza kudeaketa

- Aurrematrikula epea zabalik: ekainaren 1etik 12ra
- Ohiko matrikula epea: uztailaren 2tik 6ra
- Berri gehiago nahi baduzu "ate irekiak" izango ditugu maiatzaren 30ean 6etatik 8etara



Norberaren gaitasun eta nahien arabera egokitutako ibilbideak
Behar diren baliabideekin
Bide eta ate guztiak zabaltzen dituzten ikasketak
Eskola publikoa: integratzailea eta anitza

Helbidea: Ibargarai 1 (Frontoi parean), Bergara

☎ 943 76 24 91 / 943 76 38 40

Bulego orduak: 9etatik 13etara

Berri gehiago nahi baduzu deitu gure telefonoetara eta gure eskaintzari buruzko azalpenak emango dizkizugu



Aitor, txintxo-txintxo zaude hor, baina argazkia hain gertutik atera dizute non ia burua kabitu ere ez zaizun egiten!
Zorionak!



Aitor, zer demontre egiten duk bihurri aurpegi horrekin hor? **Zorionak** eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Urkijo, hauteskundeak irabazi behar omen dituzuen arren, pattal ikusten haugu... betaurrekoan ere erori zaizkik jada!
Zorionak Aitor!



Aitor, gero eta argiago dugu: zu Athletickeoa izango zara... aurten ere Errealak egiten ari den papera ikusirik gustura asko zaude.
Zorionak!



Ander, urtebetetze egunean gustuko oparirik jaso ez duzulako al zaude horren triste? Datorren urtean izan beharko da...



Celia, aurten ere ezkatutzen saiatu zaren arren, harrapatu zaitugu! Ez zaitez horren lotsatia izan neska!
Zorionak!



Cristina, zure aurrealdean dagoenak ez du ez buru makala! Zineman ere aurrean jarri ez dadin zure mutilaguna izatea eskatu beharko diozu!



Ekaitz, aurten ere harrapatu zaitugu... aita kotxea hartu diozula konturatzen denean bereak eta bi botako dizkizu!
Zorionak!



Eneritz, txoria buruan duzula eta txoriburua deitzen al dizute? Burua ez dakit, baina txoria ez duzu makala!
Zorionak eta ondo ibili!



Eukene, hori da hori "Ana Rosa Quintana" itxura duzuna. Zuk ere idaztea horren gustuko al duzu?
Zorionak eta ondo ibili!



Felix, alaitu ezak aurpegia motel, tri-pako minak jota hagoela zirudik eta!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Ibai, ez al zara kamerari aurrez-aurre begiratzeko gai? Argazkilaria ez duzu izango oso alai... **Zorionak** eta formal ibili hadi!



Iban, nora begira zaude horren konzentratutik?
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Janire, diadema buruan eta irrifarrea ahuan gustura asko zabilza munduan!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Jon, korrika eta presaka heldu al zinen argazkilaria-rengana? Hori da hori musugorria duzuna!
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna.



Jon, dirudizun bezain txintxoa eta ikasle ona al zara?
Zorionak eta segi horren txintxo, halako gutxi gelditzen zarate jada eta!



Joxepi, ezkatututa ikusten zaitugu, euritik ihesi beharbada? Eguzkitik ihes egitea alferrikakoa litzake, nahita ere ezingo bainukenuke urrunago izan.



Maitane, neska irrifartsua eta alai zara gero!
Zorionak eta segi horren irrifartsu eta alai aurrerantzean ere!



Maite, zer dago faltan, zer dago soberran? Buruko txoriak hegan ikasi eta ihesi atera al da?
Zorionak eta ondo pasa urtebetetze eguna!



Mari Carmen, semeak Betiszalea izaten jarraitzen al du? Ez al duzu oraindik Osasunazalea izatea lortu? **Zorionak!**



Maria Dolores, zu ere katekistekin ibiltzen al zara arratsaldeetan? Ez zara ez orduan afa-lordura gose zarela helduko!
Zorionak!



Martin, pillin, ez gaitzak begiratu bihurri aurpegi horrekin! **Zorionak** eta txintxo ibili, ahal baldin baduzu behintzat!



Miren, hori da hori irrifarre xarmangarria! **Zorionak** eta segi aurrerantzean ere horren irrifartsu, ez da seinale txarra izango eta!



Nerea, utzi txantxak alde batera eta argazkilaria lanean denean fundamentu pixka bat izan ezazu, honelako argazkiak gehiagotan atera ez ditzan!



Pablo, zorionak eta segi horren txintxo, etxean eskertuko dizute eta! (Batez ere asteburu gaue-tan kalera ateratzeko adinera iristen zarenean).



Venancio, zer egiten huen besoak altxata? Errealak liga irabazi zuela ospatzen ari al hintzen? Hi ere gazteagoa hintzen garai hartan!
Zorionak!



Maialen, Macaulay Culkin haserre omen dago ideia kopiatu diozulako! Zer moduz joan dira "Etxean bakarrik"-eko lehen bi atalak?
Zorionak!

MURUA
Oinetako konponketa

Larruzko erropen konponketa.
Guraiza, labana... zorrozketak

Labeaga, 37 URRETXU
Golden plazoletan

Secundino Esnaola, 16 B
Tel: 943 72 16 63
ZUMARRAGA

HAR GOR
ILEAPAINDEGI MIXTOA
Nekolalde, 3 baxua
☎ 943 72 44 42

HARGOR
Artisautza - arropak - opariak
Nekolalde, 1
☎ 943 72 56 58

BAPRI
ANIMALIADENDA


Txoriak, arrainak, katuk, dordokak

Urdaneta, 3 ☎ 72 61 13
ZUMARRAGA

KABIA
JATETXEA

Legazpi, 5
☎ 943 726274
ZUMARRAGA

Aizkolaritzaren mitoa oraindik borrokan



Anjel Arrospide, Leaburun jaio zen duela 44 urte, baina ezkontzearekin batera Zumarragara etorri zen bizitzera. Berak ongi dioen bezala, garai batean herri kiroletarako afizioa handia zegoen, eta horrexegatik murgildu zen bera honetan. Egun, afiziorik ez dagoela dio, hauxe da bere aburuz aizkolaritza eta herri kirolen gainbeheraren giltzarria. Berak, ordea, bere belaunaldikoek bezala, denbora apur bat aurkitzen du lanetik bueltatu ondoren gogor entrenatzeko. Oraindik ez du ilusioa galdu

ritza inguruan sortzen zen giro hartaz gozatzea. Gaur egun afizioa ere badagoela uste dut, baina ezberdintasuna gazteetan dago: Egungo gazteek ez daukate afiziorik, lehen gazte asko hasten ziren, nahiz eta beste kirolean bezala asko erdibidean geratu. Saiok ikustera ere gazte mordoak joaten zen, egun, ordea,... gutxi ikusten dira plazetan.

hauek ez dira hobetzen aizkolari berririk ez delako ateratzen. Guk, nire garaiko aizkolariek, ezarri genituen marka horiek, baina era berean adinak ez du barkatzen eta marka hauek hobetzea ia ezinezkoa da. Hau gutxi balitz, ez dator hor inor ate joka, beraz ... Bizpahiru, aizkolari gazte badaude, Arria, Nazabal, ... baina azken honek ere 33 dauzka eta jada markak hobetzeko garaia pasa zaiola uste dut.

Zerk bultzatu zintuen aizkolaritzan hastera?

Nik uste dut, guztiei bezala zaleztasunak bultzatu ninduela. Nik berezko afizioa neukan, baina koadrilako giroak lagunduta edo, apustu bat onartu nuen eta hortik aurrera ba... honaino.

Nolakoa zen garai hartako aizkolaritza giroa?

Ona, oso ona. Beste gauza askorik ez zegoen, baina herri-kirol asuntok indar asko zuen. Guretat, zaletasuna geneukanentzat, oso polita zen aizkola-

Asko aldatu al da?

Bai, bai, gazteek ez dute honetaz asko jakin nahi. Dena dela, garai bateko baserri giroak, eta mendi lanak ere zerikusia izan du honetan. Lehen aizkora gehiago erabiltzen zan, orain, ordea, motozerrarekin egiten da mendi lan hori guztia. Honek bere garrantzia izan du aizkolaritzaren gainbeheran.

Indarrean dauden markak aspaldikoak dira. Zer dela eta ez dira hobetzen?

Beno bai, baina batzuk ez dira hain aspaldikoak, duela 5-6 urtekoak baizik. Marka

Esaten denez, gaur egungo gazteek ez dute sufritzeko kemenik. Agian honegatik doa gainbeheran aizkolaritza?

Ez, ez dut uste hori denik. Sufritzearena ez dela arazo pentsatzen dut. Beste kirolean ere, dela pilotan, dela futboleant, dela txirrindularitzan, sufritu beharra dago zerbait egin edo lortu nahi baduzu. Aurreneko motiboa afizioarena da, eta gero gastuen arazoa dago, izan ere kirol garestia da.

Lehen ere gastuak egongo ziren ezta?

Bai, baina lehen apustu bat zegoenean, koadrilan 5-6 lagun elkartzan ginen eta elkarriz laguntzen genion, baina egun hori ez da ematen jada. Baina nik uste dut, orain gazte bat zaletasun eta gogoarekin aterako balitz, jendeak lagunduko liokela, halere hori ikusteko dago.

Duela gutxi aizkolari gazte bat mendean hartu duzu txapelketa batean. Hau

mundu honetan jarraitzeko pizgarri bat izan liteke?

Bai, zalantzarik gabe asko poztu nintzen Arriari irabazi nioenean. Aizkolaritza munduan jarraitzeko pizgarri bat izan da. Galdu izan banu nire erretiroa litzateke seguraski. Baina era berean "landare" bati lepoa moztu diot, motibazioa moztu diot, bera baina dexente zaharrago baten aurka "paliza" bat jaso du eta hori ez da batere atsegina.

Zer nahiago dituzu apustu edo txapelketak?

Ni txapelketen aldekoa izan naiz beti. Apustuetan dirua jokatzen duzu, beraz, presio gehiago daukazu.

"Txapelketak apustuak baino gustukoagoak ditut. Azken hauetan presio handiagoa dago dirua jokatzen baita"

Azken 15 urteetan izenak aldatu dira ala berdinek jarraitzen duzue?

Ez, berdin berdinek jarraitzen dugu. Ez dago jende berririk. Betikoak gaude, Mindegia, Olasagasti, Larretxea, Peñagarikano, Nazabal eta ni neu. Gazteen artean, ordea, Arria bakarrik azaltzen da.

Nolabaiteko plan berezirik jarraitzen al duzu forman mantentzeko?

Entrenamendu gogorrak egiten ditut, baina ez bereziak. Mendingian ibiltzen naiz, edo korrika eta gero Ezkio-Itsasoko txoko baten aizkorarekin aritzen naiz astean bizpahiru aldiz. Lehen pesak egiten nituen gimnasioan, baina orain jada ez. Etxean, aldiz, ariketa batzuk egiten ditut nire kaxa.

Aizkolaritzan hainbeste urte eman ondoren anekdotarik izango duzu...

Bai, 97ko txapelketa bateko finalean, 2 minutu ateratzen nizkiola nire jarraitzaileari, baina saioa bukatzeko 4 kolpe, egur erdia falta zitzaidanean, oxigeno falta eduki nuen eta erdi zorabiatu egin nintzen. Oso gaizki pasatu nuen.

Doping-ik ba al dago itxuraz hain garbia den kirol honetan?

Egon izan da positibo eman izan duen aizkolariren baten kasua, baina apustu eta txapelketa guztietan kontrolak pasa behar izaten ditugu. Dena dela, herri-kirolak garbi mantentzen dira aspektu honetan beste kirolekin konparatuz gero

Zer moduz ikusten duzu egungo aizkolaritza? Eta etorkizunean?

Oso etorkizun beltza ikusten diot. Nire belaunaldikoak goraka goaz adinean, ezingo dugu beti lehian egon.

Aizkolaria egongo dira, baina kalidatea asko jaitsiko da. Aizkolaritzak bizirik iraun dezan elkarren artean borrokan, entrenatzen eta prestatzeko motibazioarekin dau den 3-4 gazteren presentzia behar da.

Zer moduz orain Urrezko Aizkoran?

Momentuz ondo, bi kanporaketa gainditu ditut eta orain final erditako ligillan nago, Peñagarikano eta Mindegiarekin batera. Baina zaila daukat pasatzea, azken 2-3 urteetan aizkoran gehiegi ibili gabe egon naiz eta horregatik eskaileraren azpialdean kokatu ninduten txapelketa haseran. Txapelketa honen ondoren jaialdi eta erakusketa batzuetan parte hartuko dut, baina jada lasaiago, eta ikusiko dugu noiz iristen den erretiratzeko ordua.

Mantenijo e Sustatzailean Enpresa
HERCE
Electricistas, M. E.

Muntaia eta instalakuntza elektrikoak
 Enpresa mantenua
 Argiteria publikoa

Denda: Ipeñarrieta 4, ☎ 943 72 09 50
 Tailerra: Mugitegi, ☎ 943 72 42 66
 Mugikorra: 919 442 617

20700 URRETXU

TABERNA

Jaurrieta

JATETXEA

Piedad kalea, 14 ☎ 943 72 08 19
 ZUMARRAGA

belar-zain

Belardenda, dieta eta errejimen elikadura

Labeaga 31 ☎943722780
 URRETXU

foto luz
Argazkilaria

Legazpi, 5
 ☎ 72 11 55
 Zumarraga

Labeaga, 43
 ☎ 72 16 81
 Urretxu

Kale nagusia,5
 ☎ 73 04 19
 Legazpi

* ZURE ESTUDIOA *


Ferretería BRAVO, S.L.



INDUSTRIARAKO OSAGARRIAK - ELEKTRAGAIK - BURNIZKO TRESNERIA
 Legazpi, 4 etxeazpia eskuina ☎ 943 72 40 12 Faxes: 943 72 54 31 ZUMARRAGA

OÑATI
 Etxea
 garajearekin
 salgai

☎ 943 78 05 96
 (Gauetz deitu)



Lander Zurdo

Landerrek oso umetan erakutsi zuen berak zuen musikazaletasuna, hori dela eta, herrian solfeoa ikasi ondoren, Donostiako Kontserbatoriora joan zen musika ikastera. Beranduago musika tresna ezberdinen ikastaroak egiteaz gain, orkestra zuzendaritza ere ikasi zuen Valentzian. Baina ikasteaz gain, oso gaztetatik herriko musika talde ezberdinetan ere aritu da: Urretxuko parroko koruan, Urretxuko Txistulari Taldean eta 1963az geroztik Zumarragako Musika Bandan, esaterako. Nahiz eta beste ogibide batzuk izan dituen, musika ez du sekula albo batera utzi eta azkenean bere zaletasuna ogibide bilakatzea lortu du. Izan ere, 1987an

Zumarragako Musika Bandaren zuzendaritza hartu zuen eta handik urte batzuetara Zumarragako Udalak herriko musika koordinatzaile lanpostua eskaini zion. Musika Banda zuzentzeaz gain, musika eskolan klaseak ematen ditu eta ekimen ezberdinak aurrera ateratzeaz arduratzen da. Landerren ustez, bere lana oso aberatsa eta osoa da, hori dela eta, oso gustura dabilela dio: "zuk irakatsitakoari esker haur bat musika maitatzera heldu dela ikustea gauza handia da".

-Zer izan nahi zenuen umetan?

Musikaria edo ileapaintzailea.

-Aisialdian zer egitea atsegin duzu?

Denetik pixka bat: irakurtzea, paseatzea, baserrira joatea...

-Bizitzeko toki bat?

Bizi naizen tokian oso gustura nago, baina Itsaso eta Donostia ere oso gustukoak ditut. Noizean behin bizilekuz aldatzea oso ondo legoke.

-Musika pieza bat?

Orkestrarako musika atsegin dut oro har. Batez ere sinfonia handiak.

-Orkestra zuzendari bat?

Karismadunak atsegin ditut, euren lanean izaera gogorra dutela erakusten dutenak, Mehta adibidez.

-Orkestra bat?

Israelgoa betidanik gustukoa izan dut, baina beste orkestra handi batzuk ere bai.

-Non gustatuko litzazuke jotzea?

New Yorkeko Metropolitanan izanda nago eta bertan jotzea sekulakoa izango litzateke.

-Konpositore bat?

Brahms, bere musika oso konpletoa baita. Baina baita Guridi eta Solozabal ere, esaterako.

-Musika tresna bat?

Ezin dut bat hautatu. Gehien atsegin dudana soinua orkestrak bere osotasunean sortzen duena da.

-Nori egingo zenioke galdeketa hau?

Musika munduko maisu handiei galdera asko egingo nizkieke.

-Ileheriak ala beltzaranak?

Aurpegiarekin ondo joatea da garrantzitsuena.

-Egindako azken oparia?

Liburu bat.

-Eta jasotakoa?

Korbata bat.

-Data bat?

Asko gogoratzen ditut, batzuk onak eta besteak txarrak.

-Neska eta mutil izen bana?

Izen sinpleak eta indartsuak atsegin ditut, bere jatorrizko lurrarekin lotura dutenak. Amaia, esaterako.

-Zein egunkari irakurtzen duzu?

El Diario Vasco eta eskura ditudan gainontzeko guztiak.

-Gustuko telebista saioa?

Telebista oso gutxi ikusten dut, baina naturari eta beste kulturei buruzko dokumentalak atsegin ditut. Baita filme onak ere.

-Bereziki gorroto duzuna?

Norbanakoa aberasteko balio ez dutenak.

-Liburu bat.

Fernando Palaciosen "Escuchar" asko gustatu zait.

-Filme bat.

Azkenaldian ikusi ditudanetatik gehien gustatu zaidana "Descubriendo a Forrester" izan da.

-Gustuko abestia?

Herriarengana heltzen diren abesti mezudunak. Kantautoreenak, adibidez, asko atsegin ditut, oso indartsuak eta sentikorak baitira.

-Soinu bat.

Naturak sortzen dituenak asko atsegin ditut eta musikari dagokionez, orkestrarena.

-Ukitzeko...

Azala.

-Janari bat.

Edozein arrain, baina freskoa.

-Ura ala...

Errioxako ardo beltza ere bai.

Garaialde Lizeoa



BATXILERGOAK, D EREDUA
Natur eta Osasun Zientziak
Giza eta Gizarte Zientziak

Lau ibilbide:

- Zientifiko-Teknikoa
- Osasun Zientziak
- Giza zientziak
- Gizarte Zientziak



-Batxilergorako aurrematrikula: Maiatzaren 2tik 11ra
-ZIG (Zeregin Ikaskuntza Gela)

Labeaga kalea 25, URRETXU

☎ 943 72 21 12

Bulego ordutegia: goizeko 9etatik 11ak arte



SUKALDE ERAKUSKETA



Udala enparantza, z/g.

☎ 943 79 00 43

20500 ARRASATE

Ipeñarrieta, 5

☎ 943 72 50 75

20700 URRETUXU